



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

AITOR AGIRRE ALKORTA

**zinegotziak**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2012ko irailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta udalburua izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

362/2012 Dekretua

364/2012 Dekretua

377/2012 Dekretua

378/2012 Dekretua

379/2012 Dekretua

380/2012 Dekretua

381/2012 Dekretua

382/2012 Dekretua

427/2012 Dekretua

443/2012 Dekretua

454/2012 Dekretua

479/2012 Dekretua

485/2012 Dekretua

486/2012 Dekretua

488/2012 Dekretua

489/2012 Dekretua

516/2012 Dekretua

517/2012 Dekretua



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

428/2012 Dekretua  
434/2012 Dekretua  
442/2012 Dekretua

522/2012 Dekretua  
530/2012 Dekretua  
538/2012 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

### **HIRUGARRENA.- PRESO GAIXOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA**

Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu berezituari; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoaren eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernari.

2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.

Preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**LAUGARRENA.- KREDITU ALDAKETAK 2/2012**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

**PROPOSATZEN DA:**

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
131.449.01.01	Peoia	0,00	3.500,74	3.500,74
160.449.01.01	G.S. Peoia	0,00	1.298,59	1.298,59
162.121.01.05	Langileen Bizi Asegurua	1.800,00	134,56	1.934,56
210.441.01.01	Ur tuberi, Depositu e.a.	1.000,00	1.681,82	2.681,82



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

210.449.01.01	Bestelako Mantenimenduak	17.467,62	20.000,00	37.467,62
210.511.01.01	Kamio, Kale eta Bideen Mantenimendua	500,00	7.571,74	8.071,74
211.422.01.01	Eskoletako Mantenimendua	500,00	1.135,80	1.635,80
211.433.01.01	Kaleko Argi Indarraren Mantenimendua	2.000,00	1.500,00	3.500,00
211.439.02.01	Udaletxeko Igogailuaren Mantenimendua	2.942,14	221,22	3.163,36
211.439.05.01	Plaza Soroko Igogailuaren Mantenimendua	2.901,80	122,90	3.024,70
211.452.04.01	Frontoiaren Mantenimendua	500,00	16.000,00	16.500,00
220.121.01.01	Bulegorako Materiala	1.000,00	1.000,00	2.000,00
221.452.04.01	Frontoiako Argi Indarra	1.500,00	750,00	2.250,00
226.432.01.04	Arkitektoa	10.000,00	4.500,00	14.500,00
226.441.02.01	Gipuzkoako Ur Kontsorzioa. Kanona	9.000,00	2.049,34	11.049,34
226.452.01.01	Udalak antolatutako Ekintzak	6.580,00	1.000,00	7.580,00
227.121.01.01	Garbitasun Enpresa	23.000,00	2.000,00	25.000,00
227.121.06.01	Prebentzio Plana	1.469,10	1.210,00	2.679,10
227.432.01.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	3.731,88	6.731,88
227.413.02.99	Irati. Arratoi Suntsiketa	2.000,00	57,02	2.057,02
<b>GUZTIRA</b>		<b>87.160,66</b>	<b>69.465,61</b>	<b>156.626,27</b>

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
282.000.00.01	Obratako Lizentziak	25.000,00	44.165,01	69.165,01
420.000.00.99	F.A. Bestelako Transferentziak.	-----	6.456,68	6.456,68
420.000.00.99	F.A. Bestelako Transferentziak. Frontoia	-----	5.908,96	5.908,96
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	12.934,96	12.934,96
<b>GUZTIRA</b>		<b>25.000,00</b>	<b>69.465,61</b>	<b>94.465,61</b>

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Kreditu Aldaketak 2/2012 proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**BOSGARRENA.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN A.3 PLAZA SORO EREMUKO ALDAKETA. HASERAKO ONARPENA, JENDE AURREKO EPEA ETA BAIMENEN ETETEA.**



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

**IKUSIRIK:** LIZARTZAKo Arau Subsidiarioen A.3 Plaza Soro eremuaren Arau Aldaketaren lehen onarpenerako agiria, Lizartzan eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Eskola berria ahalbidetzeko, Haritz Orruño Arkitektoak idatzia;

**KONTUAN HARTURIK** Arau aldaketa honen objektu nagusia, eskola-ekipamenduaren kokapena ahalbidetzea dela, ikastetxe zaharra ordezkatzuz eta bere lekuan ikastetxe berria eraikitzeko partzela berri bat egokitzen delarik, A.3.1 partzela. Araxes ibaiaren ertzean oinezkoentzako pasealekua antolatzea da beste helburuetako bat. Ala ere, "A 3. Plazasoro" guneko baldintzak bakarrik aldatzen dira dokumentu honetan. Indarrean dauden Arau Subsidiarioek planteatzen zuten herri egitura orokorrarekiko irizpideak ez dira aldatzen.

**KONTUAN HARTURIK,** Uztailak 22ko 183/2003 Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen Dekretuan agertzen den 3.1 artikulua arabera, prozedura hau, lurzoru urbanizaezina ukitzen duen arau subsidiarioen aldaketei ezarri behar zaie. Egoera hau, ez da A.3 Plaza Soro Eremuan ematen, hiri lurzoru bezala sailkatua bai dago egungo planeamenduan, eta arau aldaketak ez du sailkapen hau aldatzen;

**KONTUAN HARTURIK** Ekainak 30eko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa 2/2006 Legearen 103, 104 eta 105 artikuluek diotena, 90. Artikuluarekin batera

**KONTUAN HARTURIK** Lege berdineko 85 eta 108 artikuluek jasotzen dutena.

**KONTUAN HARTURIK** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985 Legearen 22.2c) eta 47.3ll) artikuluek jasotzen dutena

Udalbatza honek, aho-batez,

## **ERABAKI DU**

**Lehengorik:** Lizartzako Udalak aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioen A.3 Plaza Soro Eremuaren Arau Aldaketaren Dokumentuaren agiriari, Lizartzan eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Eskola berria ahalbidetzen duena, lehen onarpenera ematea.

**Bigarrenrik:** A.3 Plaza Soro eremuan, eman daitezkeen onarpen, baimen eta lizentzien emateko aukera etetea.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**Hirugarren:** Agiri hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta egunkari batean argitaratzen den azkeneko datatik kontatuko delarik, beharrezkoak diren alegazioak aurkez daitezten.

**Lauugarren:** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta GARA egunkarian argitaratu, eta Sektoreko eskumenak dituzten Herri-Administrazioei hasierako onarpenaren berri eman, ezagutu eta txostena egin dezaten

**Bosgarren:** Herritarren parte hartze programa finkatu, agiriaren edukiak azaltzeko bilkurak eginaz

**SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKORRAREN ONARPENA**

**LIZARTZAKO UDALAREN ORDENANTZA OROKORRA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO**

LIZARTZAKO UDALAREN ORDENANTZA OROKORRA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO, arautzeko udal-ordenantza onartzea Udalaren interesekoa dela aintzat hartuta;

Aztertuta Idazkaritzak, 2012ko irailaren 17an, legedi aplikagarriari eta aipatutako ordenantza onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz idatzitako txostena;

Aztertuta, orobat, udal-zerbitzuek LIZARTZAKO UDALAREN ORDENANTZA OROKORRA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO arautzeko udal-ordenantzarako egindako proiektua (alkateak 2012ko irailaren 10ean eskatu eta Udal honetan 2012ko irailaren 14an jaso);

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera, Udalbatzak bilera ohizkoa egin du 2012ko martxoaren 14an; bilera horretara bertaratutako kideek gaia aztertu eta bozkatu ondoren aho batez

**ERABAKI DA**

**LEHENA.** LIZARTZAKO UDALAREN ORDENANTZA OROKORRA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea agiri honetan jasotzen den moduan:

**1. artikulua.- Helburua**



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

Ordenantza honek helburu du diru laguntzak eta laguntzak ematerakoan jarraitzen diren prozeduretan aplikatu beharreko araubide orokorra xedatzea, horrelakoen kudeaketa oso-osoan Lizartzako Udalaren esku dagoela.

## **2. artikulua.- Eremua**

Araudia Lizartzako udalak hirugarren pertsona bati egindako funts publikoei aplikatuko zaie, izan hauek pertsonak edo entitate publiko nahiz pribatuak eta interes sozialeko jarduerak burutzeko beren eskumenen eremuan.

## **3. artikulua.- Onuradunak diren pertsona edo entitateak**

1.- Diru laguntzaren onuraduntzat joko da fondo publikoak jasoko dituen pertsona fisiko edo juridikoa, hori emateko zergatikotzat jotako ekintza egin beharko duena, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena. Laguntza bat emateak ez du sortuko beste diru laguntzetara eskubidea izatea.

2.- Ez dira onuradun izango honako hauek:

- a) Epai finkoren bidez diru laguntza bat bueltatzera kondenatuek, administrazioarekin kontratua bete ez izanagatik, edota diru laguntzarik ezin jaso izatera kondenatuek.
- b) Entitatearen ordezkariaren baten bateraezintasun legala, Udaleko pertsonal edo hautatuekin.
- c) Zerga-obligazioak bete gabe edukitzea.
- d) Beste udal diru laguntza bat itzuli beharrean egotea.
- e) Beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko diskriminazioren bat sustatzen duten elkarteak.

## **4. artikulua.- Onuradunen eginbeharrak**

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

- a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza egitea edo diru laguntza emateko zio den jokabideari eustea.
- b) Diru laguntza eman duen organoari justifikatzea bete-beharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta diru laguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

- c) Diru laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.
- d) Diru laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana.
- e) Diru laguntza meateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitzeko proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta ginerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordeztan duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru laguntza arautzen duten gainerako arauekin.

- f) Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatze dokumentuak gordetzea diru laguntza eman ondorengo lau urteetan.
- g) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko.
- h) Jasotako fondoak itzultzea, itzulketa espediente bat ematen denean.

## **5. artikulua. Emakida Printzipio eta moduak**

Araudi honetako diru laguntzak iragarki, norgehiagoka, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira.

Diru laguntza horiek norgehiagoka bidez edo zuzeneko emakida bidez emango dira ordenantza honek dioenari jarraiki.

## **6. artikulua. Norgehiagoka erregimeneko diru laguntzak**

Norgehiagoka izaera izango dute aurkezturiko diru laguntza eskaerak erkatzen direnean, beren artean lehentasunak ezartzeko ezarritako balorazio irizpideak jarraituz eta deialdian zehazturiko mugaren barruan esleitzen direnean, beti ere irizpideen arabera balorazio handiena lortu dutenak.

## **7. artikulua. Emakidaren oinarriak arautzea**

Oinarri arautzaile horiek organo eskudunaren udalkideak proposaturik, Udaltzako alkate-lehendakariak onartuko ditu.





**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Oinarri arautzaileek eduki beharko dute gutxienez:

- a) Diru laguntzaren gaia.
- b) Onuradunak bete beharreko baldintzak eta betekizunak.
- c) Eskabideak aurkezteko epeak eta erak.
- d) Kaudimen baldintzak, diru laguntzaren pertsona juridikoek bete behar dituztenak.
- e) Prozedura diru laguntza emateko.
- f) Haiek emateko eta baloratzeko irizpide objektiboak, eta proportziozko banaketarako irizpideak.
- g) Diru laguntza prozeduraren ebazpena eta horiek emateko eskumeneko organoak.
- h) Egindako gastuaren justifikazioa, onuradunak izan direnen aldetik eta diru laguntzaren helburua bete denekoa eta jasotako funtsak bere direnekoa.
- i) Berme nurriak, beharrezkoak jotzen direnak, eratzeko bitartekoak nahiz ezeztatzeko prozedura.
- j) Aurretik ordainketak egiteko aukera eta konturako ordainketak.
- k) Diru laguntza emateko baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena alda dezaketen gorabeherak.
- l) Beste diru laguntza batzuekin, administrazio nahiz erakunde pribatuek emandakoak, duen bateragarritasun edo bateraezintasuna.

**8. artikulua. Gastu espedientea onartzea**

Gastu espedientea onartzeak honakoa dakar:

- a) Aurrekontu kreditua egiaztatzea.
- b) Eskumeneko organoak gastua baimentzea egin beharreko gastuaren zenbatekoa aintzat hartuta.

**9. artikulua. Deialdia**

Deialdian satuko dira diru laguntzak emateko oinarriak eta iragarri egingo da.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua urteko deialdian zehaztuko dira.

**10. artikulua. Eskaerak ebaluatzea**

Arlo horretako eskumena duen udal atalak ebaluatuko ditu eskaerak.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Ebaluazioak honakoa jasoko du:

- a) Datuak konprobatzea, horien arabera emango baita ebazpena, eta arreta berezia jarriko zaio jardueraren kostuari, izan ere diu laguntzaren zenbatekoa ezin izango baita kostua baino handiagoa, beti ere, helburu berarekin eman daitezkeen beste diru laguntzen zenbatekoak kenduta.
- b) Eskaeren ebaluazioa oinarriek zehazturiko irizpideak aintza hartuta.
- c) Emakida proposamena, bertan jasota eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa. Horrekin batera ebaluazioa eta balorazio irizpideak zehaztuko dira.

#### **11. artikulua. Diru laguntza ematea**

Udal ataleko arduradunak behin proposamena egin ondoren, eskumeneko organoak erabakia hartuko du. Erabaki honen berri emango zaie onuradun diren pertsona eta entitate guztiei.

Ondoren, emandako diru laguntzak iragarri egingo dira.

#### **12. artikulua. Emakida zuzeneko diru laguntzak**

Ondorengo kausotan emango dira:

- a) Aurrekontuetan aurreikusitakoetan.
- b) Legezko arauak emandako zenbatekoa denean.
- c) Interes publiko, sozial, ekonomiko, humanitario edo arrazoituriko bestelakoak egiaztatzen direnean.

#### **13. artikulua. Emakida zuzeneko diru laguntzen tramitazioa**

1. Prozedura ofizioz edo interesdunen bidez hasiko da.

Eskaera egiteko unean interesdunak bete nortasuna egiaztatuko du eta helburuen justifikazio memoria aurkeztuko du, ofizioz hasten bada. Baldintza horiek eskatuko zaizkio interesdunari.

2. Aurkezturiko agiriak aztertuta, txostena egingo da emakidaren egokitasuna baloratzeko beti ere ordenantzak ezarritako irizpideei jarraituz.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Diru laguntza ematearen lankidetzak gai izan daiteke diru laguntzaren baldintzak zehazteko.

3. Txostenaren arabera, udalkideak emakidaren proposamena egingo du eta zenbatekoa aztertu beharko du eta baita bera hartzen duen aurrekontu kreditua ere.  
Proposamen horri erantsiko zaio aurrekontu kreditua dagoeneko egiaztagarria.
4. Alkatetzak emakida erabaki hartuko du nori zuzendua den adieraziz, zenbatekoa eta ordainketa egiteko unearekin batera.

#### **14. artikulua. Aldaketak**

Diru laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzeak eta behin eta berriz diru laguntza jasotzeak edo beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatuetatik jasotzeak emakidaren Ebazpena alda dezake.

#### **15. artikulua. Diru laguntza arrazoitzea**

Diru laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- a) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko bideratu dela eta diruz lagundutako jarduera burutzeko.
- b) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharra aotirotzeko eta likidatzeko.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako diru laguntzak direnean honako agiriok aurkeztuko dira:

1. Jardueraren azalpen-memoria
2. Gauzaturiko kontzeptuengatikoko gastu eta sarreren likidazioa eta, halaber, azkenean lortutako emaitza.
3. Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopia konpulsatuak, egindako gastuaren egiaztagarri.

Memoriak jasoko ditu diru laguntza eman zeneko helburua bete dela egiaztatze beharrezko alderdi guztiak.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Datuak diruz lagundutako jarduerari buruzkoak izango dira, entitate baten jarduera orokorra diruz laguntzen denean izan ezik. Kasu horretan, pertsona onuradunak urteko memoria aurkeztuko du, horretara behartuta dagoenean, eta merkataritza legeriak ezarritako egiriok: Balantzea, galerda eta irabazien kontua, memoria eta azken honetan jasotako funtsen aplikazioa.

**16. artikulua. Egiaztatze epea**

Diru laguntza egiaztatzea betebeharraren ordainketaren aurretik egingo da, ordenantza honen 18 artikulua aurreikusitakoa izan ezik eta norgehiagoka denean oinarriek zehaztuko dute epea.

Egiaztatzea dagokion urtean egingo da. Salbuespen modura, eta jarduera urte osoan zehar egiten denean, laguntza eman deneko hurrengo urteko otsailaren 28 arte zabalduko da epea.

**17. artikulua. Zuriketa eta ordainketa egiaztatzea**

Dokumentazio justifikatzailearen egiaztapena dagokion arloko teknikariak egin beharko du. Arloko zinegotzi arduradunak ontzat eman beharko du aipaturiko informea. Dokumentazio guztia Kontu Hartzailetza departamentura igorriko da, Kontu Hartzaileak ordainketa egin dezan.

**18. artikulua. Diru laguntzaren ordainketa**

1. Diru laguntza ordainduko da pertsona edo erakunde onuradunek egiaztatu dutenean, eta zenbateko horren proportzioan, jarduera egin izana, edo eman zeneko helburua, proiektua burutu izana.
2. Aurretiko ordainketak ere egin ahalko dira eta egiaztatze aurretiko funtsak entregatuko dira, jarduerak burutzeko finantzazio modura eta kasu bakoitzean oinarriek zehazten dutenari lotuta.
3. Orokorrean eta aurrekontuaren arabera, aurretiko ordainketak egin ahalko dira proiektu edo izaera sozialeko nahiz nazioarteko lankidetzak izaerako jardueretan, irabazi asmorik gabekoei ematen zaienean, hala nola diruz lagundutako jarduera ezin finantza duten pertsona edo erakunde onuradunen diru laguntzetan.

**19. artikulua. Itzultzea**



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Bidezkoa izango da jaso diren kopuruak itzultzea eta berandutza interesa eskatzea, diru laguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa, hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Administrazio nahiz judizio aitorpena emakida prozeduraren deuseztasunari buruz.
- b) Diru laguntza lortzea horretarako xedaturiko baldintzen jabe izan gabe edo galarazi duten haiek ezkutatzuz bai subjektuari bai objektuari dagokienez.
- c) Ez betetzea, oso-osoan edo zati batean, laguntza edo diru laguntza ematerako oinarri den xedea.
- d) Egiaztatze betebeharra edo ezarritako epeak ez betetzea.
- e) Udal izaera zabaltzeko betebeharra ez betetzea.
- f) Aitzakia edo ezetza egiaztatze lanetan eta finantza kontrola egitean oinarri hauetan jasotakoari jarraiki.
- g) Diru laguntza ematerakoan, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- h) Diru laguntza bakoitzaren oinarrietan ezarritakoak.

Egiaztatzen edo ez betetze partziala denean egiaztatu gabeko zatiaren itzulketa eskatuko da.

Itzulketa beste laguntza batzuk jaso direlako eskatzen bada, onuradunak egiten duen jardueraren kostua gaindituz gero, gauzatzen den ekintzaren benetako kostua gainditzeko duen hondarra itzuli beharko da.

## **20. artikulua. Dirua nola itzuli**

1. Diru laguntza ematen duen organoak berak izango du eskua hartzen den zenbatekoa guztiz edo aldeztuz itzultzeko eskatzeko.
2. Diru laguntza itzultzeko prozedurari bere kabuz ekingo zaio laguntza edo diru laguntza ematen duen organoak eskatuta, hura izapidetzeko administrazio atala arduradunak txosten egin eta gero, edota banakoren batek eskatuta edo salatuta.
3. Prozedura izapidetzerakoan bermatu beharko da, nola-nahi ere, interesatuari entzuteko eskubidea.
4. Ematen den diru laguntza guztiz edo aldeztuz ez dela behar bezala erabiltzen egiaztatzekotan, organo eskudunak ziodun ebazpena emango du, argiro adierazita zergatik itzuli behar duen nahitaez onuradunak, itzuli beharreko zenbatekoa eta horretarako epea eta modua, aipatuari ohartaziko zaiola dirua xedaturiko epean itzuli ezean, beharte bideari ekingo diola Udalak.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

5. Behartze bideko prozedurari ekiten bazaio administrazio arauen bat urra dezakeen zer edo zergatik, horren jakitun jarriko da arauzko zigor prozedurari ekiteko.

### **21. artikulua. Ardurak**

Udalak emandako diru laguntzak jasotzen dituzten pertsona edo erakundeek diruz lagundutako jarduerak bete behar dituzte administrazio on, fede on eta legaltasuna printzipioekin.

Printzipio hauek ez betetzeak dagozkien ardurak ekarriko ditu eta diru laguntzaren itzulketa espedienteari hasiera ematea.

Administrazio erantzukizuna indarrean dagoen legeriak aurreikusitakoari jarraiki eskatuko da.

Erantzukizun solidarioa, edo subsidiarioa erabakitzeko, diru laguntza itzultzeko boligazioaren ondorioz, gehiturik berandutza interesak, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 40. artikuluan xedatutakoak dioena egingo da.

### **22. artikulua. Zigor araubidea**

Administrazio arau-haustek dira diru laguntza gaietan Diru laguntzei buruzko Lege Orokorrek jasotako akzio eta ez-egiteak. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke lege horren arabera eta bertan jasotako zigorrak ezarriko zaizkie arau-hausleei.

Zigorra izan daiteke isun finko edo proportzional bat. Diru zigorra behar ez bezala jasotako edo egiaztatu gabeko kopuruaren gainean ezarriko da. Isun honek ez du zerikusirik 19 art.an jasotako itzulketarekin eta kobratzeko eskubide publikoko diru sarreratzak hartuko da eta Dirubilletari buruzko Araudi Orokorra hartuko da kontuan.

### **AMAIERAKO XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak 70.2 art.an xedaturikoari jarraiki.

Indarrean izango dira Ordenantza honetako arauak ahalik eta aldatu edo bertan behara utzi arte.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**BIGARRENA.** Udal-ordenantza hori jendaurrean jarri eta interesdunei jakinaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta hogeita hamar egunez Udaleko iragarki-oholean erakutsaraziz, egoki irizten dionak gero Udalbatzak azertu beharreko erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Aipatutako epean inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat joko da behin betiko, Udalbatzak berariaz erabakia emateko beharrik gabe.

**HIRUGARRENA.** Ahalmena ematea alkate-lehendakariari gai honi lotutako dokumentu oro izenpetzeko.

Horrenbestez, adierazitakoa dagozkion helburuetarako jasota gera dadin, idazki hau egin dut Lizartzan, bi mila eta hamabiko martxoaren hamabostean, alkatearen oniritziarekin, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duenak, 206. artikuluan jasotako salbuespena kontuan harturik.

**ZAZPIGARRENA.- UDAL ZERGA ETA TASEN TARIFA ALDAKETA**

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tarifak honela geldituko lirateke:

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	2012 URTEA	IPC 2012 – 2,7%	2013 URTEA
TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiago	33,11	0,89	34,00
	9tik 11,99 ZF. Bitarte	62,85	1,70	64,55
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	107,90	2,91	110,81
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	149,57	4,04	153,61
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	193,05	5,21	198,26
AUTOBUSAK	20 ZF. Gorakoak	234,94	6,34	241,28
	21 eserlektatik beherakoak	148,12	4,00	152,12
	21etik 50 bitartekoak	210,86	5,69	216,55
KAMIOIAK	50etik gorakoak	263,64	7,12	270,76
	1000tik kg.ko erabilgarritik behera	75,17	2,03	77,20



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

	1000tik 2999 bitartekoak	148,12	4,00	152,12
	2999tik 9999 bitartekoak	212,92	5,75	218,67
	9999tik gorakoak	263,64	7,12	270,76
TRAKTOREAK	16 ZF beherakoak	31,42	0,85	32,27
	16tik 25 bitartekoak	49,38	1,33	50,71
	25tik gorakoak	148,12	4,00	152,12
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA	750tik 1000 bitartekoak	31,42	0,85	32,27
	1000tik 2999 bitartekoak	49,38	1,33	50,71
	2999tik gorakoak	148,12	4,00	152,12
ZIKLOMOTOREAK		7,86	0,21	8,07
MOTOZIKLETAK	125 c.c. Bitartekoak	7,86	0,21	8,07
	125tik 250 bitartekoak	13,45	0,36	13,81
	250tik 500 bitartekoak	26,97	0,73	27,70
	500tik 1000 bitartekoak	53,88	1,45	55,33
	1000tik gorakoak	107,70	2,91	110,61

Ibilgailuen Gainerako Zergaren Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

### **UR HORNIDURA TASAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Ur Hornidura Tasaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Ur Horniduraren Tasaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Ur Hornidura Tasa honela geldituko lirateke:





**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA- 0,29 – 0,43 – 0,57**  
**PROPOSAMENA - 2013**

KONTZEPTUA		GUZTIRA
Ura – Etxeak	270 kontagx 36 m3 x 0,29 x 4	11.275,20
- Lokalak	11 kontagx 36 x 0,43 x 4	681,12
- Industriak	13 kontag. X 36 x 0,57 x 4	1.067,04
Infraestruktura Kanona	294 kontag. x 7,00 x 4	8.232,00
Kontagailuen Kanona	294 kontag. x 1,35 x 4	1.587,60
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>22.842,96</b>
<b>GASTUEN AURRIKUSPENA</b>		
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa- 53.000 m3 x 0,633 €/m3	33.549,00
	Infraestruktura Kanona	13.300,00
	Kalitate Kontrola	720,00
	Bestelako Mantenimenduak	2.648,16
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>50.217,16</b>
<b>DIFERENTZIA</b>		<b>- 27.374,20</b>

Ur Hornidura Tasa Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

**ZORTZIGARRENA.- ONIK – IRUNZUBI INDUSTRIALDEAN LURREN PERMUTA BERRESTEA ETA ALKATEARI AHALMENAK EMATEA**

**AURREKARIAK**

**LEHENA:** 2007-ko maiatzaren 15an ONIK SL empresak, bere jabetzarenak ziren lurak Lizartzako Udalarai permutatzeko proposamena luzatu zion.

Proposamenak, ONIK SL-ren jabetzan dagoen eta katastroaren arabera 2.389 m2-ko azalera duen P 246 partzelako 1.206,58 m2 Lizartzako Udalarai emateko jasotzen zuen. Trukean, Lizartzako Udalak U1 sektorean dauden eta udalaren jabetzarenak diren a) eta b) zonak emango zizkion.

- 667,58 m2 duen P2 partzelaren atzeko aldea edo hego zona, jabari publikoa duena eta estudio de detalleren arabera gune publiko libre bezala definitua dagoena.
- 539,00 m2 duen P2 partzelaren eskuin aldea edo ekia, jabari publikoa duena eta estudio de detalleren arabera interes publiko komertialeko zerbitzu zona bezala definitua dagoena .



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**BIGARRENA:** 2008ko irailaren 3an Lizartzako Udalak eta ONIK SL-k permuta gauzatzeko dokumentua adostu zuten.

Udalak 1sektorean dauden eta 1.206,58 m2 duten a) eta b) partzelak ONIK SL-ri emango zizkion eta ONIK SL-k katastroaren arabera 2.389 m2 duen 246 partzela udalari emango zion.

**HIRUGARRENA:** Udalak 2008ko irailaren 28ko Dekretu bidez, Irunzubiko poligono industrialeko zerbitzuak zonalde berdinean batertazeko aukera egokia zela adostu zuen.

**LAUGARRENA:** Lizartzako Udaleko 2008-ko azaroaren 27ko erizpen txostenak honakoa zioen,

- a) Udalaren ondsasunak (bi partzelak) 59.043,00 eruoko balio zuela eta ONIK SL-rena 44.760,32 euro.
- b) ONIK SL-ren alde bi partzelak eskualdatzen zirela eta ONIK SL-ek 2.389 m2 azalera zuen P 246 partzelarengatik permutatuko zela.
- c) Bi aldeek inongo ordainketarik egiteko adostasuna zuten.

**BOSTGARRENA:** 2008ko martxoaren 3an buruturiko Udal Batzarraren Idazkari txostenak honako jaso zuen,

- a) ONIK SL-ren partzelak 2.389 m2 ko azalera zuen.
- b) Udalaren bi partzelen azalera 667,58 m2 eta 539,00 m2 koa ziren.
- c) ONIK SL-ren ondasuna 44.760,32 euroko balioa zuela eta Lizartzako Udalarenak 59.043,00 eurokoa.
- d) Bien arteko akordioa zela eta, bata besteari inongo ordainketarik egingo ez zela.
- e) Erkide Autonomkoko erakunde eskudunari permutaren berri emango zitzaioela.
- f) Alkatesari udalaren izenean, eskritura publiko bidez permuta bidezko besterentzea egiteko ahalmena ematen zitzaion.

**SEIGARRENA:** Udal batzarrak erabaki bezala, Lizartzako Udalak Gipuzkoako Diputaziori permutaren berri eman zion eta 2009ko martxoaren 26an Diputazioak Lizartzako Udala eta ONIK SL-ren arteko permuta adostasunaren berri zuela adierazi zuen.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

**ZAZPIGARRENA:** 2009Kko martxoaren 29ko data duen udaleko idazkariaren ziurtagiriak, udalak permuta bidez jaso behar zuen ondasuna udal zoru ondasunera bideratuko zela zioen.

**ZORTZIGARRENA:** 2009ko apirilaren 29ko udal teknikariaren txostenak honakoa jaso zuen,

- a) Udal neurketaren arabera 246 partzelak 3.109 m<sup>2</sup> azalera zuela.
- b) 246 partzelak 44.706 euroko balioa eta landa izaera zuela.
- c) Udalarena bi partzelek 44.706 euroko balio zutela.

**BEDERATZIGARRENA:** 2009ko maiatzaren 2ko Alkatetza Dekretuak aginduta, udal arkitektoak ondasunen balorazio txosten berri bat egin zuen eta denen balioa 44.706 eurokoa zela adierazi zuen.

**HAMARGARRENA:** Adierazitako ondasunak zehaztutako baldintzetan permutatzeko akordioa erdietsita, bi aldeek eskritura publiko bidez gauzatzeko erabakia hartu zuten nahiz eta inorri egotzi ezin zaion arrazoiengatik hura burutzerik ez zen izan.

## **PROPOSAMENA**

Lizartzako Udalak, ONIK SL-rekin adostu eta gauzatu ez zen ondasun permuta formalizatu edo burutzea erabaki du.

**LEHENA:** Permuta, azkenekoz zehaztutako ondasun eta baldintza berdinetan gauzatuko da.

Udalak 1sektorean dauden eta 1.206,58 m<sup>2</sup> azalera duten a) eta b) partzelak ONIK SL-ri emango dizkio eta ONIK SL-ek 2.389 m<sup>2</sup> azalera duen 246 partzela udalari emango dio.

**BIGARRENA:** 2009ko maiatzaren 2an udal arkitektoak eginiko ondasunen balorazio ontzat ematen da, hortaz permutauko diren ondasunen balioa 44.706 eurokoa da.

**HIRUGARRENA:** Aldebiek bata besteari inongo ordainketarik egiteko adostasuna lortu du.

**LAUGARRENA:** Toki erakundeen Ondasunen Erreglamendua onartzen duen ekaineko 13ko 1372/1986 Errege Dekretoaren 112 artikulua betetzen da, permutatu behar diren ondasunen arteko balioa %40 gainditzen ez duelako, balio haundiena duena kontutan hartuta.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

**BOSTAGARRENA:** Toki Erakundeen Ondasunen Erreglamendua onartzen duen ekaineko 13ko 1372/1986 Errege Dekretoaren 109 artikulua jarraituz, permutaren berri Autonomi Erkidegoko erakude eskudunari emango zaio.

**SEIGARRENA:** Alkatea den, Aitor Agirre Alkorta-ri, permuta bidezko ondasun besterentzea eskritura publikoan gauzatzeko ahalmentzen da.

Onik –Irunzubi Industrialdean Lurren Permuta berrestea eta Alkateari ahalmenak emateko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### **BEDERATZIGARRENA.- BESTELAKOAK**

#### **KONPOSTATZE IKASTAROA**

Konpostatze Ikastaroa, datorren larunbatean, irailak 29, goizeko 10:30etan izango dela jakinerazten da.

#### **GIPUZKOAKO URAK**

Aurreko astelehenean, Gipuzkoako Urak-ekin bilera burutu zen eta bertan, Uraren Gestio Integralataz hitzegin zen.

Baita ere, Ur depositua eta ura aztertu behar dira, herrian dagoen karearen arazoa konpondu ahal izateko.

#### **SANEAMENDUA**

Saneamenduko obrak aurrera doaz, baina konturatu gara, lanak ez direla ondo burutzen ari.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera eskatu da. Baita Gipuzkoako Urak-ekoei ere jakinerazi zaie, beraiek izango bait dira gestionatu beharko dutenak.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK  
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia